# EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

**Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean 1932'ko Ilbeltzaren 28'an.**

Euskaltzàin jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Eguskitza, Intza, Lakonbe, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea eta Oleaga. Otoitz egin da.

1.° Lizaŕan, Napaŕoan, Bazkun beŕi bat sortu da, izenez: *Sindicato de Iniciativas y turismo de Estella*. Euskal-Izkuntzaren batzorderako izen bat eskatzen digute. Euskaltzaindiak bere ordezko Alfonso Ugarte jauna izendatzen du.

2.° Elissalde jaunak, Bidasotik aruzko eŕiska batzuei igortzen zaizkien izen-goitiak azaldu dizkigu. Oso polit eta jolasbidekoak dira. Zerbait auŕetik azalpidetzat ipiñi-ta gure *Euskera*'n argitaratuko dira.

3.° Elissalde berak, Elizanburu'ren 1882'gaŕeneko eŕanak azaldu dizkigu. Batzuen-batzuek ez ezik, beste gañerakoak lengo atzotitzetan badaude.

4.° Aita Intzak, eŕi-itz eta esaerak ekaŕi dizkigu.

5.° Eguskitza jaunak ongi aztertu du 1777'gaŕeneko Pranzizko Xabier Lariz'en Katezismoa. Ortik ateratako itz berezi batzuek iztegi beŕirako gorde dira.

6.° Azkue jaunak euskal-esakera piĺa beŕi bat irakuŕi digu.

7.° Altube ta Ormaetxeak eŕi-itz batzuek, ta bigaramonerako beste lan batzuek utzirik, otoitzez amaitu da batzaŕaldia.